

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA**

Justizi Sailburuordetza
Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL**

Viceconsejería de Justicia
Dirección de Ejecución Penal

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ATXILOTUARI LAGUNTZA EMATEKO
ZERBITZUAREN 2006. URTEKO TXOSTENA**

AURKIBIDEA

- ◆ AURKEZPENA
- ◆ ESTATISTIKA DATUAK
- ◆ ESTATISTIKA DATUEN BALIOESPENA
- ◆ ARABAKO ESTATISTIKA DATUAK
- ◆ BIZKAIAKO ESTATISTIKA DATUAK
- ◆ GIPUZKOAKO ESTATISTIKA DATUAK

AURKEZPENA

Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzuak 1987. urtean abiatu ziren, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako Hitzarmenaren babesean.

Zerbitzu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hiru Lurralde Historikoetan eskaintzen dira, Barakaldoko, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Guardiako Epaitegietatik.

Justiziaren alorreko Gizarte Lanetik zenbait ekintza jarri nahi dira abian, Organo Jurisdikzionalei eta atxilotuei edo auzien zain daudenei laguntzeko. Beraz, bulego horiek aukera ematen dute Justizia Administrazioa eta Erkidegoko Gizarte Zerbitzuak harremanetan jartzeko.

Hona Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzuaren funtsezko egitekoak:

1. Atxilotutakoei justizia-jauregietan bertan laguntzea.
2. Auzipetuari laguntzea eta orientatzea, gizarteratze-prozesua lagunduz; horretarako, lan-planak egiten dira, auzipetua gizarteratze, bere hutsuneak gainditze eta bere gaitasunak sustatze aldera.
3. Instrukzioko, Emakumearen aurkako Biolentziako, Zigor-arloko Epaitegiei edo Probintzia-Auzitegiei informazioa ematea atxilotu edo auzipetuaren egoera pertsonala eta sozialari buruz.
4. Zigor-arloko neurriak proposatzea, eta prozeduraren zenbait fasetan laguntzea, prebentziozko presoaldia saihesteko eta behin-behineko askatasuna lortzeko.

Atxilotuari Emateko Zerbitzuak, batetik, informazio egokia jartzen du atxilotuen edo behin-behineko askatasun-egoeran daudenen egoera juridikoarekin zerikusia duten erabakiak hartu behar dituzten epaitegien eskura, eta, bestetik, lagun horiei beharrezko laguntza eskaintzen die, haien gatazkak konpon ditzaten eta gizartera daitezen.

Helburu orokor bezala honako hauek zehazten dira: batetik, epaitegiei informazio egokia ematea, eta horien eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazioa erraztea; eta, bestetik, toxikomaniekin, osasun mentalarekin edo beste edozeinekin arazorik duten auzipetuei arreta ematea, haien erantzukizuna arintzeko eta indarreko Zigor Kodean zehaztuta dauden neurrietako bati bide emateko.

Berriazko helburuak honako hauek dira:

- a)Epaileen informazio-maila handitzea, auzipetuen egoera sozio-familiarrari eta arazoei dagokienez, eta komunitateak arazo horiei erantzuteko eskura dituen bitartekoei dagokienez.
- b)Horren harira epaileek zein auzipetuek egin ditzaketen eskaerak bideratzea.

c) Gizarte-baliabideen, Gizarte Laneko profesionalen eta Justizia Administrazioaren arteko komunikazioa erraztea.

d) Atxilotuei beharrezko laguntza ematea, gatazkak konpontzeko eta gizarteratzea lortzeko aukera izan dezaten.

Guzti honekin, Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzuaren **eginkizun garrantzitsuenak** honakoak dira:

-Atxilotuen egoerari eta eskuragarri dauden baliabideei dagokien errealitatea ezagutzea.

-Informatzea eta orientatzea, epaileen, erabiltzaileen eta gizarte-zerbitzuen eskaerei buruz.

-Eskaerak biltzea eta horiei eman beharreko erantzunak bilatzea.

-Lehen, bigarren eta hirugarren mailako prebentzioa, marjinazioa sorrarazten duten arazoietan arreta berezia jarritz.

-Gainerako gizarte-zerbitzuekiko koordinazioa eta lankidetzak.

-Baliabide indibidualak (norberaren parte-hartzea eta pixkanakako autonomia sustatzen dute) eta komunitatearenak (programak, proiektuak, legegintzaren eta bestelako ekimenak eta abar) mobilizatzea.

Aurretik aipatutako helburu eta funtzioak betetzeko **metodologian** honako lau osagarri hauek biltzen dira:

-Errealitatea aztertzea: horren arazoak, beharrak, baliabideak eta gatazkak.

-Jardueren programazioa.

-Gizarte-ekintza, arrazionaltasunez eta helburu jakin batez gidatua (jarduten den gizarte-errealitatea mantentzea, hobetzea edo eraldatzea).

-Egindakoa edo egiten ari dena ebaluatzea.

Berriazko ezaugarri bezala honako hauek aipatzen dira:

-Arreta-programa indibidualak zehaztea, lagun bakoitzak aurkezten duen berriazko arazoari erantzun egokia emateko.

-Familiari orientatu, informatu eta laguntzeko programak, familiaren parte-hartzea bultzatzeko eta hartara lanerako planak emaitza egokia izan dezan.

-Sarean lan egitea, bestelako zerbitzu orokor eta berriazkoei (epaitegiak, esaterako) lagunduz eta horiekin koordinatuz.

Metodologiaren barruan hiru esku-hartze maila bereizten dira:

A.- Maila indibiduala:

Maila indibidualean erabiltzaileei laguntza emango zaie prozesu judizialaren unerik garrantzitsuenetan: atxiloteta, judizioa, epaia, eta abar. Batzuetan, larritasuna arintzeko baliagarri izango da laguntza hori; beste batzuetan, aldiz, egotzi zaion gertaeran duen erantzukizuna har dezan exijituko zaio arau-hausleari. Orobat, arazo larriei heldu eta konponbidea ematen zaie, hala nola, familiarekiko telefono-harremanari eusten zaio, aldi baterako ostaturia bilatzen da, mantenua, psikiatria-

larrialdiak, eta abar. Hartara erabiltzaileari ahalik eta erantzunik azkarrena ematen ahalegintzen da zerbitzua, eta kasu bakoitza dagokion gizarte-zerbitzura bideratzen da.

Arreta indibidualak aukera ematen du erabiltzaileak azaldutako eskaera esplizituak eta inplizituak aztertzeko. Profesionalak horiek guztiak atzeman eta horiei guztiei heltzen die. Kasu batean zein bestean erabiltzailea arazoan konponbide zehatzak bilatzen inplika dadin lortu nahi da, eta auziei arreta berezia eskaintzen zaie. Hain zuzen ere erabiltzaileei auzi horiek identifika ditzaten laguntzen zaie, zitazioetan azaldu beharra jakinarazten zaie, eta deitzen zaien guztietan epaitegietan azaldu beharra dutela gogorarazten zaie.

Bestetik, zerbitzua modu egoki, argi eta xumean aurkezten da, arreta emango zaien lagunei itzaropen faltsurik eman gabe. Horren haritik, prozesu judizialaren edozein unetan **ALEZra** jotzeko aukera izango dutela gogoraraziko zaie, honako hiru helburu hauekin bereziki:

- Interesdunari auzia zertan den jakinaraztea, eta agiri judizialen edukia uler dezan laguntzea.
- Lotura bat sortzea, **ALEZ** erreferentzia bihurtu eta hartara horren jarraipena egiteko. Azken buruan gizarte-laneko plan zabalago bat jarri nahi da abian (errehabilitazio-tratamendu bati hasiera ematea, esaterako), etorkizunean espetxeratzearen neurri alternatibo baten proposamena sorrarazteko.
- Komunitatean eskuragarri dauden gizarte-baliabideei buruzko informazio eguneratua ematea.

B.- Maila Familiarra:

Zerbitzuarentzat garrantzi handikoa da erabiltzailearen tratamenduan familia zenbateraino inplikatzeko den jakitea. Izan ere, askotan familia izaten da zerbitzuarekin harremanetan jartzen dena, bizitzen ari diren egoerari dagokionez informazioa eta laguntza eskatzeko.

Familiak funtsezko zeregina du prozesu indibidualak bilakaera egokia izan dezan. Familiar konfiantza-giroa sortzea eta aldi berean gatazka-egoerak arintzea funtsezkoa da prozesuaren martxa ona bermatzeko.

Atxilotua auzitaratzen denean, gizarte-langileak familiari ematen dio haren egoeraren berri. Orobat, **ALEZtik** egiten den lanari buruzko informazioa ematen zaie, familiari orientatzeko eta familiarekin batera konponbideak bilatzeko.

C.- Maila Instituzionala:

Bi esku-hartze mota bereizten dira:

- Epaitegiekikoa: epaileei, fiskalei, funtzionarioei, poliziaei eta abarri informazioa ematea, bai **ALEZtik** egiten diren eginkizun eta jardueri buruz, bai erabiltzaile bakoitzarekin garatutako lanerako plan indibidualizatuei buruz.

- Gizarte Zerbitzuekikoa: komunitatearen gizarte-zerbitzuen sarearekin elkarlanean jarduten dugu, lagun horiek baliabide horietara bideratzeko eta haien portaerak normalizatzen laguntzeko.

Memoria honetan 2006. urteko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako estatistika-datuak biltzen dira, baita bertako profesionalek egindako lanaren balioespena ere. Lurralde bakoitzarekin batera bere eranskina aurkeztu da, bakoitzaren ezaugarriak aditzera emateko. Izan ere, lurraldeek nork bere ezaugarriak dituzte, helburuak berdinak izan arren.

EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO 2006. URTEKO ESTADISTIKA DATUAK

ZENBATEKOA GUZTIRA ESKU-HARTZEAK	
ARABA	1.674
BIZKAIA	11.782
GIPUZKOA	3.925
GUZTIRA	17.381

ESKU-HARTZEEN SAILKAPENA

ESKU- HARTZEAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
ELKARRIZKETAK	626	1.633	1.185	3.444	19.81
BILERAK	73	-	73	146	0.84
GESTIOAK	912	9.278	2.535	12.725	73.21
TXOSTENAK	63	871	132	1.066	6.14
GUZTIRA	1.674	11.782	3.925	17.381	100

EGINDAKO ELKARRIZKETAK

ELKARRIZKETAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
ATXILOTUAK	91	25	28	144	4.18
AURREZ IREKITAKO KASUAK	484	733	926	2.143	62.22
AUZIAREN ZAIN DAUDENAK	34	839	214	1.087	31.57
GORABEHERAK	17	36	17	70	2.03
GUZTIRA	626	1.633	1.185	3.444	100

ARRETA ESKAINI ZAIEN ERABILTZAILEEN TAULA

ERABILTZAILEAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
ATXILOTUAK	91	39	52	182	8.80
AURREZ IREKITAKO KASUAK	110	733	310	1.153	55.8
AUZIAREN ZAIN DAUDENAK	34	492	137	663	32.07
GORABEHERAK	17	30	22	69	3.33
GUZTIRA	252	1.294	521	2.067	100

EPAITEGIEI EMANDAKO INFORMAZIOAREN TAULA

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
EPAIKETETAN LAGUNTZEA		3	16	3	22	2.07
TXOSTEN SOZIALAK	EPAIAK ESKATUTA	8	88	63	159	14.93
	ZERBITZUAK ESKATUTA	8	164	32	204	19.13
INFORMAZIOA ETA ZIHURTAGIRIAK	EPAIAK ESKATUTA	27	27	30	84	7.87
	ZERBITZUAK ESKATUTA	17	576	4	597	56
GUZTIRA		63	871	132	1.066	100

ARABAKO 2006. URTEKO ESTADISTIKA DATUAK

KASUEN ESTADISTIKA

EPAITEGIAREN ZENBAKIA	ATXILOTU KOPURUA	GUARDIAN ARRETA EMAN ZAIEN ATXILOTUAK						GUARDIA ONDOKOAK		GUZTIRA
		EPAITEGIAK ESKATUTA		AUZIPETUAK ESKATUTA		BESTELAKOAK		BERRIA	BERRERORLE	
		BERRIA	BERRERORLE	BERRIA	BERRERORLE	BERRIA	BERRERORLE			
1	171	4	-	5	19	1	-	-	-	29
2	166	-	-	4	16	-	-	-	-	20
3	155	1	-	4	17	-	-	-	-	22
4	156	-	-	5	15	-	-	-	-	20
GUZTIRA	648	5	-	18	67	1	-	-	-	91

BESTE ESKUHARTZE BATZUK	2006AN IREKITAKO KASUAK		AURRETIK IREKITAKO KASUAK	GUZTIRA
	Auziaren zain	Gorabeherak	Kasu kopurua	
		34	17	110

ATXILOTU BERRIEN EZAUGARRIAK

		ZBK.	%
SEXUA	Gizonak	20	83.33
	Emakumeak	4	16.67
ADINA	16-20	0	0.00
	21-25	2	8.33
	26-30	5	20.83
	31-35	3	12.50
	36- +	13	54.17
	Ez dago daturik	1	4.17
EGOERA ZIBILA	Ez kongabea	13	54.17
	Ez kondua	6	25.00
	Alarguna	0	0.00
	Banandua/Dibortziatua	3	12.50
	Ez dago daturik	2	8.33
BIZIKIDETZA EGOERA	Jatorriko familiarekin	6	25.00
	Familiarekin	11	45.83
	Bakarrik bizi da	0	0.00
	Eskalea	0	0.00
	Lagunekin	3	12.50
	Kalean	1	4.17
	Ostatutan	1	4.17
	Egoitza batean	1	4.17
	Ez dago daturik	1	4.17

		ZBK.	%	
EGOERA JURIDIKOA	ATXILOKETAREN ARRAZOIA	Ondarearen aurkakoa	7	29.17
		Pertsonen aurkakoa	10	41.67
		Contra la libertad sexual	0	0.00
		Osasun publikoaren aurkakoa	1	20.83
		Bilatu eta atxilotzeko agindua	0	0.00
		Bestelakoak	5	20.83
		Ez dago daturik	1	4.17
	AURREKARIAK	Polizialak	5	20.83
		Penalak	4	16.67
		Ez dauka	13	54.17
		Ez dago daturik	7	29.17
	AITORTU ONDORENGO EGOERA	Askatasuna	5	20.83
		Behin-behineko askatasuna	12	50.00
		Atxilotua	0	0.00
		Behin-behineko espetxe zigorra	2	8.33
		Baldintza gabeko espetxe zigorra	0	0.00
		Espetxe zigorra	0	0.00
		Ez dago daturik	5	20.83
	ARAZOA	Osasuna	2	8.33
		Drogo-menpekotasuna	8	33.33
		Sozio-familiarra	9	37.50
Sozio-ekonomikoa		2	8.33	
Lana-prestakuntza		0	0.00	
Atxiloketatik eratorria		3	12.50	
Espetxeratzearen ondorioz eratorria		0	0.00	
ESKAKIZUNA	Berehalako laguntza	1	4.17	
	Tratamentua	3	12.50	
	Familiarekin harremanak	1	4.17	
	Diru-laguntza	1	4.17	
	Lana-Prestakuntza	0	0.00	
	Laguntza	8	33.33	
	Orientzaioa	8	33.33	
	Ez du eskaririk	2	8.33	
ESKU-HARTZEA	Amaitua	18	75.00	
	Amaitzeke	2	8.33	
	Deribatua	4	16.67	
	Laguntza	2	8.33	

ARABAKO ESTADISTIKA DATUEN BALIOESPENA

2006. urtean, Atxilotuari Laguntza emateko Gasteizko Zerbitzuari gagozkiola, 1.674 esku-hartze egin dira guztira, dagokion jardun-eremua osatzen duten ataletan barne harturikoak.

Esku-hartze horiek guztiak hartuta, esan dezakegu %37,39 elkarrizketei dagozkiela, %54,49 eginiko gestioei, %4,36 beste zenbati profesionalekin zein beste zerbitzu eta erakunde batzuekin izaniko elkarrizketak lirateke eta %3,76 zerbitzuaren ekimenez zein epaitegiak eskatuta aurkezturiko txosten edo idazkiei egokituko litzaioke.

Arreta eman zaien lagunei buruz lortu diren datuak honela xehatzen dira: guardiako epaitegitik atxilotu gisa igarotako 91 laguni eman zaie arreta, hots, arretaren %14 dependentzia judizialek atxilotu gisa igaro diren lagunen guztiarekiko, eta %14,54 zerbitzuak arreta emaniko lagunen guztizkoarekiko.

Auzien zain daudenen atalean, 34 laguni eman zaie arreta, lehen aldiz eman ere, eta 110 lagun lehendik irekiriko kasuak ziren, betiere 2006. urtean ALEZaren esku-hartzea eskatu dutenak.

Gorabeheren atalei dagokienez, hots, gizarte- eta familia-arloko problematikaren bat zutela-eta arreta eskaini zaien lagunak, 17ri eman zaie arreta, hots, guztira arreta emaniko lagunen %6,7.

2006. urte osoan atxiloturiko lagunen profilari dagokionez, honako datu hauek nabarmendu behar dira:

- Arreta emaniko lagunen %83,33 gizonak dira eta %16,67 emakumeak.
- Antzeko ehunekoa ageri da 21-25 urteko eta 31-35 urteko adin-tarteetan, eta 36 urtetik gorako tarreak du mailarik handiena (%54,16); datu horiek iazkoekin alderatuz gero, delitu bat egiteko adin-tarreak igo egin dira, ikus dezakegunez.
- Egoera zibilar dagokionez, %54,16 ezkongabeak dira, %25 ezkontuta daude edo bikotean bizi dira eta %12,50 bananduta edo dibortziatuta daude; bizikidetz-egoerari dagokionez, ia erdiak (%45,85) harturiko familiarekin bizi dira, eta %25, aldiz, jatorrizko familiarekin batera bizi da.
- Delituaren tipikotasunari dagokionez, jabetzaren aurkakoa deiturikoak du mailarik handiena, %70,83arekin
- Aurrekariei dagokienez, ondo bereiziriko bi talde daudela ikus dezakegu: alde batetik, aurrekari polizialak dituztenak (%20,83), eta, bestetik, beren lehen delitua egin dutenak (%54,17). Azken horien %50 behin-behineko askatasunean dagoela deklaratu ondoren, %20,83, aldiz, askatasunean, eta azpimarratzekoa da %8,33 espetxean sartzen dutela behin-behingo.

- Ikus dezakegunez, atxilotzetik eratorririko problematika motaren zati bat (%33,33) tratamenduei buruz informazioa eskatzen duten lagunei dagokie eta %37,50, aldiz, arazo sozio-familiarrak dituztenei.
- Aurten aurkezturiko txosten edo idazkiei dagokienez, igoera txikia izan da aurreko urteekiko, guztira 63 izan baitira, eta iaz, 49.

BIZKAIAKO 2006. URTEKO ESTADISTIKA DATUAK

HARTATUTAKO PERTSONAK

	AUZIAREN ZAIN DAUDENAK	GORABEHERAK	ATXILOTUAK	AURREZ IREKITAKO KASUAK	GUZTIRA	%
BARAKALDO	155	22	9	199	385	29.75
BILBAO	337	8	30	534	909	70.25
GUZTIRA BIZKAIA	492	30	39	733	1.294	100

EPAITEGIEI EMANDAKO INFORMAZIOA

		BARAKALDO	BILBAO	GUZTIRA	%
EPAIKETETAN LAGUNTZEA		6	10	16	1.84
TXOSTEN SOZIALAK	EPAIAK ESKATUTA	27	61	88	10.10
	ZERBITZUAK ESKATUTA	22	142	164	18.83
INFORMAZIOA ETA ZIHURTAGIRIAK	EPAIAK ESKATUTA	10	17	27	3.10
	ZERBITZUAK ESKATUTA	130	446	576	66.13
GUZTIRA		195	676	871	100

ESTADÍSTICA DATUEN BALIOESPENA

2006. urtean Bizkaiko **ALEZtik** 1.294 laguni eman zaie arreta. Horietatik 894k Bilbora jo zuten, eta 388k Barakaldoko zerbitzura.

Arreta eman zaien erabiltzaileen artean honako hauek bereizten dira:

- **492 lagun auzien zain daude.** Kopuru horretatik, 39 lagun **ALEZera** atxilotu gisa joan ziren eta 453k behin-behineko askatasunean jarri ondoren jo dute, eta epaia noiz izango zain daude. Haien egoera judizialari buruzko informazioa eta horri buruzko orientazioa eskatuz guregana lehen aldiz jotzen dutenen kopurua adierazten du kopuru horrek. Eskaera horri erantzuteko, lanerako plan indibidualizatu eta konplexuagoak egiten dira, erabiltzailearen egungo egoerari buruzko informazioa emateko, auziak dituen epaitegietan jardun-proposamenak biltzen dituzten txosten sozialak aurkeztuz. Kolektibo horren hainbat gestio instrukzioko, zigor-arloko eta auzitegiko epaitegietara bideratzen dira, baita gizarte-zerbitzuetara ere.

- **30 gorabehera.** Horietatik 8k Bilboko **ALEZra** jo zuten, eta 22k Barakaldoko Zerbitzura. Guardiako Epaitegitik bideraturiko lagunak dira. Zerbitzuan harrera egiten zaie eta berriazko gizarte-zerbitzura bideratzen dira, zerbitzuak horien ardura hartu ezin duelako.

Bizkaian arreta eman eta zerbitzuan espedientea irekia duten lagunei eginiko jarraipenari dagokionez, 534 lagunek Bilbora jo dute, eta 199k Barakaldora. Kopuru horiek aditzera ematen dute alde zuzenetik espedientea zuten lagunei (atxilotuak edo auzien zain daudenak) urtean zehar eskaini zaien arreta.

Urtean 2.938 **elkarrizketa profesional** egin dira. Horietatik: **25 elkarrizketa atxilotuei egin zaizkie, auzitaratu diren unean.** Elkarrizketa horiek unean uneko eta premiazko eskaerei erantzutea dute helburu, eta atxilotetatik eratortzen den egoera judizialaren eraginpean daude. Horrenbestez, atxilotetaren ondoren erabiltzailea behin-behineko askatasun-egoeran geratzen bada, elkarrizketa honako huetan oinarrituko da: aldi baterako alojamendua (aterpetxeak, ostatuak...) bilatzeko eskariak bideratzea, mantenua (jangelak), eta behin-behineko espetxeratzea erabakitzen bada: familiarekin harremana, espetxean toxikomaniei buruz dauden zerbitzuei buruzko informazioa eta prozesu judizialari buruzko informazioa bi kasuetan ere.

Era berean, epaileari atxilotuaren egoeraz eman beharreko informazioari buruzko premiazko jardunak ere ondorioztatzen dira elkarrizketa horietatik; atxilotua tratamenduan badago eta atxiloteta bilatzeko eta atxilotzeko agindu batek eragiten badu, auzitegiak inputatuaren egungo egoera zein den ez dakiela, eta, kasuak kasu, espetxean sartzea eragotzi dezakeen neurri bat jaso dezakeena.

GIPUZKOAKO ESTADISTIKA DATUAK

HARTATUTAKO PERTSONAK

	GUZTIRA	%
ATXILOLTUAK	52	21.58
AUZIAREN ZAIN DAUDENAK	137	56.85
AURREZ IREKITAKO KASUAK	30	12.45
GORABEHERAK	22	9.13
GUZTIRA	241	100

ATXILOTU BERRIEN DATUAK EZAUGARRIAK

		ZBK.	%
SEXUA	Gizonak	25	83.33
	Emakumeak	5	16.67
ADINA	16-20	7	23.33
	21-25	2	6.67
	26-30	3	10.00
	31-35	9	30.00
	36- +	9	30.00
	Ez dago daturik	-	-
EGOERA ZIBILA	Ezkongabea	23	76.67
	Ezkondua	3	10.00
	Alarguna	-	-
	Banandua/Dibortziatua	4	13.33
	Ez dago daturik	-	-
BIKIDETZA EGOERA	Jatorriko familiarekin	14	46.67
	Familiarekin	3	10.00
	Bakarrrik bizi da	1	3.33
	Eskalea	-	-
	Lagunekin	1	3.33
	Kalean	8	26.67
	Ostatutan	1	3.33
	Egoitza batean	2	6.67
	Ez dago daturik		-

		ZBK.	%	
EGOERA JURIDIKOA	ATXILOKETAREN ARRAZOIA	Ondarearen aurkakoa	14	46.67
		Pertsonen aurkakoa	10	33.33
		Contra la libertad sexual	-	-
		Osasun publikoaren aurkakoa	3	10.00
		Bilatu eta atxilotzeko agindua	-	-
		Bestelakoak	3	10.00
		Ez dago daturik	-	-
	AURREKARIAK	Polizialak	8	26.67
		Penalak	10	33.33
		Ez dauka	10	33.33
		Ez dago daturik	2	6.67
	AITORTU ONDORENGO EGOERA	Askatasuna	-	-
		Behin-behineko askatasuna	30	100
		Atxilotua	-	-
		Behin-behineko espetxe zigorra	-	-
		Baldintza gabeko espetxe zigorra	-	-
		Espetxe zigorra	-	-
		Ez dago daturik	-	-
	ARAZOA	Osasuna	-	-
		Drogo-menpekotasuna	12	40.00
		Sozio-familiarra	6	20.00
Sozio-ekonomikoa		7	23.33	
Lana-prestakuntza		-	-	
Atxiloketatik eratorria		5	16.67	
Espetxeratzearen ondorioz eratorria		-	-	
ESKAKIZUNA	Berehalako laguntza	1	3.33	
	Tratamentua	2	6.67	
	Familiarekin harremanak	-	-	
	Diru-laguntza	-	-	
	Lana-Prestakuntza	-	-	
	Laguntza	-	-	
	Orientzaioa	26	86.67	
	Ez du eskaririk	1	3.33	
ESKU-HARTZEA	Amaitua	3	10.00	
	Amaitzeke	2	6.67	
	Deribatua	23	73.33	
	Laguntza	3	10.00	

EPAITEGIEI EMANDAKO INFORMAZIOA

		GUZTIRA	%
TXOSTEN SOZIALA	EPAAIAK ESKATUTA	63	48.85
	ZERBITZUAK ESAKTUTA	32	24.81
INFORMAZIOA ETA ZIHURTAGIRIAK	EPAAIAK ESKATUTA	34	26.36
	ZERBITZUAK ESAKTUTA		
GUZTIRA		129	100

ESTADÍSTIKA DATUEN BALIOESPENA

2006. urtean, Atxilotuari Laguntza emateko Donostiako Zerbitzuan guztira 521 lagun eman zaie arreta. Horietatik 438 gizonak dira, eta 83 emakumeak. Guztira 3.922 laguntza eman dira.

Arreta eman zaien lagunetatik 52 atxilotuak dira, 137 auzien zain dauden eta denboraldi horretan lehen aldiz arreta eman zaien lagunak, eta 310 aurrez irekiriko kasuekin zerikusia duten eta memoria honi dagokion denboraldian zehar ALEZaren esku-hartzea eskatu duten lagunak. Azkenik, 22 gorabeheratan ere esku hartu da, familia-arloko, gizarte-arloko edo bestelako problematikak dituzten eta nolabaiteko arreta judizialaren beharra duten lagunei laguntza emanez. Azken lagun horiek normalean orientazioarekin eta esku-hartzearekin zerikusia duten eskaerak egiten dituzte.

Guardiako Informatika Zerbitzuaren (GIZ/SIG) Atxilotuen Erregistro Liburua oinarri hartuta, ALEZak denboraldi horretan Guardiako Epaitegian jardun duen bitartean 706 lagun erregistratu dira guztira.

Atzerritarrak atxilotu horien %48,30 dira, eta honako herrialde hauetatik datoz:

- Ipar Afrikako Herrialdeak %39,88
- EEEko Herrialdeak %17,60
- Hego Amerikako Herrialdeak %17,89
- Europako Ekialdeko Herrialdeak %16,72
- Ekialde Urruneko Herrialdeak %3,81
- Beste batzuk %4,11

Atxilotuen kolektibo hori egoera zailean bizi da: harrera-herrialdean haien egoera erregularizatzeko arazoak, mugigarritasun geografiko handia, eta abar. Gauzak horrela, hartan esku hartzea zaila da benetan. Kolektibo horri arreta emateko, harremana behar da instituzioekin eta haiekin lan egiten duen zerbitzuarekin.

Delitu motari dagokionez, sarriena ondarearen aurkako eta ordena sozio-ekonomikoaren aurkako izan da %44,31rekin, atzetik ordena publikoaren aurkako delituak dituela %15,17rekin. %9,65 segurtasun kolektiboaren aurkako delituak izan dira eta %12,06 etxeko indarkeriari buruzkoak izan dira.

Guardiako epaitegitik igaro ostean atxilotu berri gisa arreta eman zaien lagunen tipologia dagokionez, honako hauek azaldu behar dira:

- Sexuari dagokionez, %83,33 gizonak dira eta %16,67 emakumeak.
- Arreta eman zaien lagun horien adina kasuen %23,33an uztartzen da 18-20 urteko adin-tartearekin, %6,67an 21-25 urteko adin-tartearekin, %10ean 26-30 urteko adin-tartearekin, %30ean 31-35 urteko adin-tartearekin eta %30ean 36 urtetik gorako adin-tartearekin.

- %46,67 bere jatorrizko familiarekin batera bizi da, %10 harturiko familiarekin, %3,33 bakarrik bizi da, %3,33 lagunekin bizi da, %3,33 ostatueta, %6,67 egoitza/erakundean eta %26,67 kaleran dago.
- Atxiloketaren arrazoiak pertsonen aurkako delituei dagokien kasuen %33,33an, %46,67 jabetzaren aurkako delituak dira, %10 osasun publikoaren aurkako delitua eta beste delitu batzuk, aldiz, %10.

Etxeko indarkeriako delitueta inputaturiko lagunei arreta ematen jarraitu dugu, guardiako epaitegiak zein emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak bideraturikoak, eta guztira problematika horren inguruko 29 kasuri eman zaie arreta.

Aipatzekoa da, halaber, atxilotu berri gisa arreta eman zaien lagunen %67,18k polizia- edota zigor-aurrekariak dituela. Horietatik, %100 behin-behineko askatasunean geratu zen.

Kolektibo horren problematika handiena toxikomania da kasuen %40an, atzetik sozio-ekonomikoa (%23,33), sozio-familiarra (%20) eta atxiloketaren ondoriozkoa (%16,67) dituela, azken hori buruko gaixotasunekin loturik dagoela.

Atxilotuari Laguntza emateko Zerbitzuarekin izaniko lehen kontaktuan eginiko eskariak bideratzekoak dira gehienbat (%86,67), eta atzetik datoz tratamendukoak (%6,67) eta lehen mailako asistentziakoak (%3,33).

2006. urtean zerbitzuak arreta eman dien erabiltzaileen tipologiari dagokionez, honako ezaugarri hauek nabari dira:

Sexuari dagokionez, %84,48 gizonak dira, horietatik %19,14 atzerritarrak, %59,17 iparrafrikarrak direlarik. Bestalde, %15,51 emakumeak dira, horietatik %14,89 atzerritarrak, %57,14 hegoamerikarrak direlarik.

Adinari dagokionez:

- 18-20 urte, %3,63
- 21-30 urte, %25,41
- 31-36 urte, %27,06
- 36 urtetik gorakoak, %43,89

Gehienek lehen mailako ikasketak dituzte.

Urte horretan ALEZean arreta eman zaien erabiltzaileen %14,85ek osasun mentaleko problematika zuen.

Substantzia toxikoen kontsumoari dagokionez, poli-toxikomanoak dira gehienbat. %68,31k kontsumitzen zutela egiaztatu da. %69,27k bi substantzia toxiko edo gehiago kontsumitzen ditu, besteak beste, heroina, kokaina, speeda, estasia, LSDa, kanabisa, alkohola eta farmakoak. %30,73k substantzia toxiko bakarra kontsumitzen du, eta horien artean alkoholaren kontsumoa %54,38ra iristen da, heroinarena %22,80ra, kanabisarena %10,52ra, kokainarena %8,77ra, eta speedarena eta estasiarena %3,5ra.

Drogak uzteko tratamenduari dagokionez, droga-kontsumoaren problematika zuten lagunen %48,79 tratamendu-zentroetan zegoen 2006. urtean. Erabiltzaile horien %21,78k osasun mentaleko problematika ere bazuen, eta horrek esan nahi du psikiatra-arretaren beharra ere bazutela, drogak uzteko zentroan ezarri zaien tratamenduarekin batera.

Kontsumo-problematika daukaten lagunen %50,72 bi tratamendu-zentrotan edo gehiagotan egona da honezkero.

Zentro bakarrean, aldiz, %24,64k izan du tratamendua, eta ehuneko hori bera dagokie inolako tratamendurik hasi ez duten lagunei, gehienak alkohola eta kanabisa kontsumitzen duten erabiltzaileei dagozkielarik.

ALEZean arreta emaniko erabiltzaileen %13,86 espetxean zegoen.

Substantzia toxikoen kontsumo-problematika dutenen %61,08 bi tratamendu-zentrotan edo gehiagotan egon da honezkero.

2006. urtean zehar bilduriko eskaerei dagokienez, aipatzekoa da eskaera horien %55,85 ALEZko erabiltzaileek eta haien senideek eginak direla. Eskaera horien %16,67 epaitegietan egin da. Abokatuek %11,75egin dute, eta gizarte-zerbitzuek %13,03.

Eskaera horiek zerikusia dute ALEZetik ALEZaren erabiltzaileak auzipetuta dauden auzietan egiten den esku-hartzearekin.

Zerbitzu honetatik epaitegietara bidaltzen den informazioari dagokionez, **129** komunikazio bidali dira guztira, txosten sozialak eta komunikatuak barne. Epaitegiek auzi-idazki ofizialen bitartez eskatuta, **63** txosten sozial egin dira, eta zerbitzuak eta/edo auzipetu horien defentsaren ardura duten abokatuek eskatuta, aldiz, **32** txosten. **95** txosten sozial eta **34** komunikatu egin dira guztira.

Txosten sozial horiek ALEZaren laguntza jasotzen ari diren auzipetuei dagozkie, eta gure ustez garrantzi handikoa da haien gizarte- eta osasun-egoera zertan den jakinaraztea epaile magistratuei.

Txosten sozial horien bidez egiaztaturiko problematikari dagokionez, toxikomania **72** txostenetan egiaztatu da, osasun mentala **3** txostenetan, problematika duala —osasun mentala eta toxikomania— **9** txostenetan, eta problematika sozio-familiarra **13** txostenetan.

Aipatzekoa da **102 auzitan** ALEZak auzipetuei buruzko informazioa aurkeztu duela, hartara kondenatuari ezarri beharreko zigorra indibidualizatu ahal izateko, haren zirkunstantzia pertsonal eta sozialak balioetsi ondoren.

Aurkezturiko txosten sozialen %**88,42n** substantzia toxikoen historiala eta osasun mentalaren problematika egiaztatuta zegoen, eta horrek epaietan kondenaturiko lagunen erantzukizun kriminala arintzen edo salbuesten duten zirkunstantziak biltzea ahalbidetzen du.